

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

# HM UDABERRIKO KONTZERTUA

2019ko maiatzaren 11an - 18:30 - Oiartzungo Udaletxean - 5 euro

## BUHAMINAK

(Iparraldea)



Bost emazte xiberotarrek dugu **Buhaminak** taldea sortu, 2001 urtean, (heietarik 4 gira oraino taldean). Sophie Larrandaburu beste xiberotar bat izan da gure zuzendaria 16 urtez, 2017ko iraila arte, eta geroztik Maialen Errotabeherak hartu du bere segida.

Abentura hau abiatu zen Baionako bestetan, gau batez, 5 xiberotarsa horiek heien kantuaren amodioa partekatu zutelako, kantuz, oroaz, ostatu xoko bestetan, gau guzi hartan. Ez zen besterik behar istorio eder hunek erroen edo zainen egiteko. Emazte lagunak, kantuza-leak hanitx izanik, laster taldea haunditu zen. Luzaz 30ekin izan gira eta gaur egun 40 bat gira.

Elkarte bat ere sortu genuen talde hunen sustenguz, kantuaren praktikatzeko helburuarekin (partikulazki euskal kantua). Erran behar da euskarari atxikiak girela, hanitxendako delakoz ama hizkuntza.

Laster etorri zen mementoa, izen baten atxemaiteko. « Buhaminak » deitu dugu emazte kantu talde hori. Izena, etortzen da « buhamia » hitzetik. Eta xiberoan, aspaldi danik, norbait kalifikatzen bazen

« buhame » bezala, zen pertsona hori beti alegera, besta egile, kantuz ari, eta dantzaz ari zelakoz. (Buhaminak taldeko emazteak holakoak senditzen gira). Bainan Buhaminak da ere hitz joko bat, « buha-minak », barnean ditugun minak ufutzen, kanporatzen ditugumakoz kantuaren bidez.

Gure errepertorioa aldatzen da, izaten ahal dira euskal kantu herrikoiak, bai ta ere kantu zombait sortuak ikusgari berezi batzuentzat, pastoral edo beste, bainan ere mundu zabaleko kantuak. Hala nola zulu kantuak, azken garai hontan kantatzen ditugu, 3 edo 4 botzetan.

Kantuekin bidaiak egiten ditugu, euskal herri guzian baita ere, pasatzez Argentinatik, Rumaniatik, Hego Afrikatik, Australiatik, Afrikako beste herrietatik, eta abar...

Buhaminek kantuari esker pasatzen dute, heien atxikimendua eta lotura euskal herriari, euskal kulturari baita ere taldeka kantuz, diziplinari.

Ikasi dugu elgarrekin kantatzen, bata besteari entzutez, kasu emanez eta partekatuz.

Bainan orenen gaintetik, maite ditugu-

nak dira, festa mementoak, kantua kontzertuetan baita ere kontzertuetatik kanpo.

Gure asmoa da, kantatzeko gogo horren, eta kantuen partekatzea, zuekin entzule guziekin...

--Emazte atherbea

Hitzak: Pierre Larralde

Musika: Sophie Larrandaburu

--En qué nos parecemos

(Argentinako amodio kantua)

--Dantzaldi (Herrikoia...)

--Syiahamba (zulu kantua)

--Neure andrea (herrikoia)

--Diamano guile (Afrikar kantua)

--Gerezien denbora (pastoral kantua)

Hitzak: Itxaro Borda

--Kantu kanta kantore

Hitzak: Ani Obiague

Musika: Sophie Larrandaburu

--Ngarra burra (Aborigene kantua)

--Nafarroa (Jean Michel Bedaxagar)

--Amodio ezinezkoa

(Kattalina de Erauso pastorala)

Hitzak: Gillom Irrigoyen

Musika: Sophie Larrandaburu

--Thula/Txotxoloza (zulu kantua)

--Zezenak (herrikoia)

# PARTI CUT LLOI

(Gales)



**Parti Cut Lloi** abesbatza Galesko Montgomeryshire eskualdeko Banw bailarako mutil talde bat da. Siân James abeslari eta harpa joleak zuzentzen duen talde hau Meifod 2003ko National Eisteddfod txapelketan lehiatzeko asmoarekin eratu zen. Sekulako arrakasta izan zuten txapelketako Folk Party saileko lehen saria eskuratu zuenean. Horren ondoren Gales guztian zehar kontzertuak emateko eskaera ugari jasotzen dituzte. Galestar telebistako *Noson Lawen* eta *Cefn Gwlad* saioetan atera izan dira; baita irratian ere.

Taldearen ezaugarri nabarientakoa bere berotasuna da, baita bere kideek kantatuz lortzen duten gozamina eta entretenimendurako ematen dituzten aukera ezberdinak ere.

**Parti Cut Lloi** taldeak kantatzen dituen abestiak galesez dira. Gainera, beraien eskualdean bereziki kantatzen diren abesti forma zahar batzuk daude eta horiek ere beraien pro-

graman barneratzen dituzte. Horrela, Eguberrietan kantatzen diren *Plygain* erako abestiak edo bertsoetan egiten denaren antzera inprobisatutako letra izan dezaketen *Penillion* erakoak kantatzen dituzte beraien emanaldietan.

**Parti Cut Lloi** taldearen arrakastarako giltzarririk izatekotan, hori Siân James zuzendari andere argia da. Bera arduratzen da talde hau osatzen duten abeslariari bidea ikusten laguntzen diena eta esperientzia zabalarekin bihotzez eta gogotsu kantatzeko inspirazioa.

**Siân James** ibilbide luzea duen musikaria da. Gaztetandik parte hartu du Galesko kultur topaketa ezberdinetan kantatzen eta biolina, pianoa edo harpa jotzen. Galesko Unibertsitateko irakaslea ere baden musikari hau, gaur egungo galestar musika herrikoia erreferentzia garrantzitsua da.

## AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Ibergain Kultur, Jolas eta Kirol elkartearen izango da. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

**Kontzertua+Afaria: 20 euro**

**kontzertu honen  
laguntzaileak:**

